

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO

#### **Saneamendu zerbitzuaren tasa ordaindu behar dutenen errolda. Onartu, jendaurrean jarri eta kobratzea**

Alkatearen 2018ko abenduaren 27ko 215 Dekretuaren bidez, onespena eman zaio saneamendu tasaren erroldari 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldirako. Hortaz, jendaurrean jarriko da, hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu ahal izan dadin eta, hala badagokio, egoki jotzen diren oharrak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan daitezten.

Interesdunek espedientea Kanpezuko udaletxean aztertu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak Kanpezuko Udaleko lehendakariari aurkeztuko zaizkio, gorago adierazitako epeetan.

Tasa horri dagokion errolda ordaintzeko moduan jarrita egongo da, borondatezko epean, 2019ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era arte (biak barne), egun baliodunetan. Helbideratutako ordainagiriak hainbanatu eta hilaren 1a eta 5a bitartean igorriko dira.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek edozein banku bulegoren bitartez ordaindu ahal izango dute, etxean jasoko duten kobrantza jakinarazpena aurkeztuta. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du udalak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Kanpezuko Udalak zuzenean kudeatuko du kargua ordainketa helbideratu den banku kontuan.

Borondatezko epean ordainketarik egin ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Kanpezu, 2018ko abenduaren 27a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*